



**Testuliburuak eta ikasmaterial  
didaktikoaren kudeaketa  
solidarioa eta zuzena egiteko  
programa**

**Irakasleen lansari  
desberdintasuna**

**EMAITZEN TXOSTENA**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	4
2. Testuliburuak eta ikasmaterial didaktikoaren kudeaketa solidarioa eta zuzena egiteko Programa .....	5
3. Irakasleen lansari desberdintasuna .....	10
4. Proposamen orokorrak .....	15
5. Labur bilduz .....	16
6. Eranskinak .....	17
• Eztabaidarako erabili diren fitxak	
• XXIII. Topaketen ebaluaketa	
• Prentsa oharra	

## 1.- SARRERA

2007ko azaroan Gasteizko Europa Jauregian burutu dira SAREAN Elkartearen XXIII. Topaketak ondoko gaien inguruko hausnarketa egiteko:

- *Testuliburuak eta ikasmaterial didaktikoaren kudeaketa solidarioa eta zuzena egiteko Programa*
- *Irakasleen lansari desberdintasuna*

SAREAN Elkartearen helburu nagusiak harremanak sendotzea da, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere. Topaketak jardunaldi garrantzitsuak dira bertan biltzen diren ikastetxeen ordezkarien iritzi bateratuekin osatzen baita elkarteak gaien aurrean hartuko duen jarrera eta izango duen iritzia eta hori berori izango da Hezkuntza Sailaren ordezkarietara transmitituko zaiena bileretan egiten diren proposamenen bidez.

Aipatutako gaiak oso garrantzitsuak dira ikastetxeen funtzionamendurako eta etorkizunean izango duten ohiartzuna kontuan hartuta, ezinbestekoa iruditu zitzaigun iritzi adostua edukitzea.

XXIII. Topaketen lehen saioa mahainguru bat izan zen. Bertan sindikatu guztien ordezkariak irakasleen pizgarri berrien inguruan aritu ziren, hartu den erabakia bakoitzak nola ikusten duen eta etorkizunari begira bakoitzak duen asmoa.

Hurrengo saioetan Topaketetarako erabiltzen ohi dugun diseinoa erabili zen, hau da, talde txikietan eztabaida eta proposamenak eta azkenean talde handiaren aurrean elkarjartze saioa. Gai bakoitzaren inguruko eztabaida ordenatua egiteko, gidoi gisa fitxa batzuk erabili ziren (1 Eranskina).

Topaketetan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ordezkarietara gain beste erakundeen partaidetzarekin ere kontatzen dugu, hala nola, EHIGE, Sindikatuak, BIHE etab. Aldi honetan aipagarria izan da ikastetxeen partaidetza ebaluaketan ikus daitekeen bezala ( 2 eranskina).

Lehen esan bezala, aztertu diren gaiak garrantzi handikoak dira ikastetxeetan eta puntualak izan arren, bazterrak nahastu dituzte eta etorkizunean islada izan dezakete. Bai bata eta bai bestea erabaki berriak izan dira eta hastapenetan ikusi diren akatsak zuzentzeko tenorean gudela uste dugu. XXIII. Topaketen ondorioekin osatu dugun txosten honen helburua hobekuntza horretan lagungarri izatea da.

## 2. - TESTULIBURUAK ETA IKASMATERIAL DIDAKTIKOAREN KUDEAKETA SOLIDARIOA ETA ZUZENA EGITEKO PROGRAMA

Gaia aztertzen aritu ziren partaideen ikastetxeen datuak

31 IKASTETXE					
Lurraldea	Ikastetxe kopurua	Didaktika arloa		Esperientzia pilotua	
		Testuliburuak erabiltzen	Testulibururik gabe	Testuliburuak erabiltzen	Testulibururik gabe
Araba	6	4	2	0	0
Bizkaia	9	8	1	0	1
Gipuzkoa	13	9	4	4	3
Datu gabe	4	3	1	-	-

Gaiaren azterketa egiteko erabili ditugun dokumentuak hauexek izan dira:

- Hezkuntza Sailak ikastetxeetara bidalitako behinbehineko agindua
- Euskadiko Eskola Kontseiluak proiektuari egindako irizpena.
- 2007ko maiatzean ikastetxeetara bidalitako informazioa ofiziozko ezarpena komunikatzeko.
- 2007ko ekainean 2007-08 ikasturtean programa ezartzeko ikastetxeetan jasotako araudia.
- 2007ko uztailan ikastetxeetan jasotako argibide orria.
- 2007ko maiatzaren 21eko agindua, non Hezkuntzaren zerbitzuen prezio publikoak arautzen diren.

Hausnarketa ordenatua egiten laguntzeko gidoi bat erabili zen, eta txosten honetan puntuz puntu azalduko ditugu sortutako kezka eta iradukizunak:

### FILOSOFIA

Partaideen gehiengoak begi onez ikusten du programaren filosofia eta Hezkuntza Sailaren borondate ona onartzen du baina kritika gogorra egiten zaio erabili den ezarpen prozesuari.

Ikastetxeetara heldu den azken aginduan programaren izenburua aldatuta badago ere, aurreko informazioetan "ekitatea" hitza sartzen zen eta kontzeptu horren inguruan dauden ikuspuntu eta sentsibilitateak azaldu dira. Ekitatea ez da ulertzen denoi dena dohan ematea baizik eta gehiago behar duenari, gehiago ematea. Honen haritik, argi utzi da ikasleen behar ekonomikoak ez direla bakarrik liburuak erosteko, hortxe daude irteera pedagogikoak, eskolaz kanpoko ekintzak etab. eta ekitateari hurbilketa egiten hasiz gero, ikasle batzuk horretarako ere laguntza beharko lukete.

Bestalde nahasmena sumatu da liburuen berrerabilpena eta dohakotasunaren artean. Ikastetxeetan antzinate ahalegina egiten da

birziklaketa bultzatzeko eta ildo horren barruan hartzen da programa hau baina informazioa ez da argia izan eta ez du antolaketan lagundu.

## PROGRAMAREN EZARPENA

Arlo honen azterketa gaiaren atal nagusia izan zen eta arestian aipatu bezala kritika gogorrak jaso zituen. Hiru multso nagusi aztertu ziren:

1. Ohinarrizko baldintzak
2. Antolakuntza eta kudeaketa arloa
3. Arlo pedagogikoa

### 1.- OINARRIZKO BALDINTZAK

#### 1.1- Egindako esperientzia pilotua

Hasierako taulan agertzen diren datuetan argi ikusten da nolabaiteko kontraesana, zeren Topaketetako partaideen arteko ikastetxeetan (31) askoz gehiago dira testuliburuak erabiltzen dituztenak testuliburu gabekoak baino (21 bai, 7 ez) baina pilotajearen proportziorik handiena testulibururik gabekoena da. (7 ikastetxetik 4).

Programarekin mota horretako ikastetxeentzat errekurtso gehiago lortzeko bide bat izan da diru horrekin mediatekak etab. hornitu direlako.

Nabaritu den beste akats bat zera izan da, esperientzia pilotuaren ebaluaketa ezagutu barik programa ofizioz orokortu dela; honek erakarri du arazo ugari zeren ezaugarri eta behar desberdinetako ikastetxeak neurri bakarrarekin neurtu dira.

Arabako ikastetxeen kasuan arazo galantak izan dituzte bertan Aldundiak beste diru-laguntza ematen duelako eta ohiko dinamika apurto zaielako berriari egokitzeko denborarik gabe.

Gertatutakoak pentsarazten digu esperientzia pilotuak ez duela bere helburua bete.

#### 1.2- Informazioa

Hau atalik kritikatuena izan zen. Agindua ikasturte amaieran heldu zen ikastetxeetara, informazioa ez da argia izan, are gehiago, batzuentzat ulergaitza benetan, gurasoei informazioa transmititzeko zalantza asko sortu dira eta horiei erantzuteko arduradun zehatzik ez da egon. Gainera ez da praktikoa ikusten ikastetxe guztiek gurasoei azalpen berberak eman behar dizkietenean Administrazioaren aldetik eredu idatzia ez bidaltzea, horrek txarto ulertuak ekidin eta interpretazioa erreztuko bailuke, kontatu barik ikastetxeei aurrezten zaion lana.

SAREAN Elkarteak aspalditik planteatu du Administrazioaren aurrean ikastetxeek edozein dela gaia, informazio argia eduki behar dutela, zer esanik ez orokorra bihurtu nahi den programa baten ezarpena denean.

#### 1.2-Epeak

Esan bezala, programaren berri ikasturtearen amaieran heldu zen eskoletara, lan bereziak pilotzen diren garaian eta ikastetxe gehienek ordezkariak

kexatu dira oso gaizki ibili direlako antolaketa egiteko. Gainera informazioa txarra izan denez, hutsuneak ikusten dira, adibidez lau urteko progresioaren zehaztapena.

#### *1.4-Finantziarioa*

Ikastetxeen errealitatea ez da uniformea eta gai honetan denok berdin tratatu dira; azkenean arazo ugari eta kexu egiteko arrazoiak denontzat, testuliburuak erabiltzen dituzten ikastetxeek dirua eskas geratu zaielako eta testulibururik erabiltzen ez dituztenek dirua bai, baina gastuak justifikatzeko arazoak ere bai.

Kontuan hartzen badugu aurten 1. zikloa bakarrik sartu dela programan eta diru-laguntza kasu askotan ez zaiela heldu, datorren urterako, 2. zikloa sartzen denean arazoa larriago izango dela aurrizusten da.

Bestalde testuliburuak aukeratzeko orain arte erabili diren irizpideak aldatutzeko zorian daude eta pedagogikoak izan barik, ekonomikoak bihur daitezke.

Testulibururik gabe funtzionatzen duten ikastetxeen ikasle bekadunak kaltetu dira programaren ezarpena eta Egoera batzuei erantzunteko erantzunik oraindik ez dago, adibidez, zer gertatzen da epez kanpo matrikulatzen diren ikasleen liburuekin? Eta ikasturtean zehar eskolaz aldatzen direnekin?

## 2.-ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA ARLOA

### *2.1-Zuzendaritza*

Liburuen programak familiei begira onurak ekarri baditu ere, Zuzendaritza Taldeentzat zama berri bat besterik ez da izan. Zuzendaritza Taldekoek gaur egun eskola kudeatzeko dituzten buruhaustek gutxi balira, beste betebeharra gehitu zaie horretarako baliabiderik gehitu barik.

### *2.2- Gestio programa*

Lehenengo eta behin erosketak egiteko modua ez da argi azaldu eta bakoitzaren interpretazioaren arabera egin dira.

Familiak ingesatu behar duten dirua kontabilitatean islatuta gera dadin lan izugarria eskatzen du "hirugarrenak" banan banan sartzea.

Arlo honetan ere "informazio argiaren" falta nabaria egon da eta ondorio zuzena izan da zuzendaritza Taldekoen lana biderkatzea.

### *2.3-Gurasoen papera*

Programa honen ezarpenak guraso askorentzat onurak ekarri ditu: diru gutxiago jarra, ardurarik ez, etab. baina Topaketetako lan taldeetan bestelako egoerak ere aztertu dira ondokoa gogor salatuz:

- Argi ikusten da premiarik handiena duten familiak kaltetuta geratu direla programarekin. Haietzat beka sistema askoz hobea zen.
- Araban sortu den Egoera, Administrazioen arteko komunikazio faltaren ondorioa izan da, baina kaltetuak familiak izan dira.

Programaren ezarpenak eskatzen duen parte hartzeari buruz, jarrera desberdinak egon dira gurasoen artean. Eskola batzuentzat Zuzendaritzarekin batera lan handia egin dute baina beste askotan ez dira ezertaz arduratu. Puntu honetan ere informazio argiaren faltak dena zaildu du eta gurasoak zalantza asko izan dute.

#### 2.4- Batzordea

Batzordeari dagokionez erantzun orokorra izan de "ez dela eratu" edo eratu arren zalantza asko izan dutenez, Zuzendaritza Taldearen ardurapean geratu dela dena. Ikastetxeetan erantzun hori emateko arrazoia, lehen aipatutakoak dira, ikasturtearen momentu txarrean egin zela eta bidali zen informazioa oso txarra izan zela.

#### 2.5- Mantenimendua

Ikastetxe batzuetan ohitura daukate liburuak komunean erabiltzeko eta ez dute arazo berezirik ikusi programa berriarekin, bestetan, aldiz, funtzionamendu osoa aldatzen da eta ikasleen heziketarako positibotzat hartzen bada ere, arazo ugari aurrikusten da zalantza asko dagoelako; hona hemen batzuk:

- Irakasleen funtzioa programari dagokionez.
- Arduraduna zehaztu.
- Familien erantzukizuna argi zehaztu.
- Errebisio eta mantenimendurako arduradunak eta denbora.

#### 2.6- Liburuak gordetzeko

Liburua, tresna den aldetik egoera onean mantentzea ezinbestekoa da. Horretarako eguneroko erabilpenarekin batera biltzeko leku egokia eduki behar da.

Eskola gehienetan gaur egun espazio falta nabaria daukagu eraikuntzak ez daudelako egokituta ikasleen beharretara, proiektuak martxan jartzen espazio fisikoa hobetu barik. Honek bultzatzen gaitu galdetzera ea non eta nola gorde daitezkeen liburu guztiak gela gehienetan 25 pupitre justu sartzeko lekua baitago.

### 3.- ARLO PEDAGOGIKOA

#### 3.1 Liburuak erabiltzeko arauak

Zalantzas beteriko esparrua da erabilpenarena. Lan-taldeetan holan ageri da ere eta galdera hurrenkera osatu da:

- Liburuetan idatzi ala ez? Argi zehaztu.

- Liburuak gutxienez lau urte jarraian erabili behar dira. Nola eta nork egin du erabakia?
- Nola ziurtatu ikasle eta familien erantzukizuna?
- Azpimarratzearen ohitura? Nola lortu batera erabakitzea?
- Testulibururik erabiltzen ez dituzten ikasleen kasua?
- Bultzatu nahi den filosofia honetan zein da fotocopian lekua? Noiz egin daitezke? Kopururik?
- Eta argitaletxeen jarrera egiten duten materialaren tipologian nork kontrolatuko du?
- Non geratzen da ikastetxeko autonomia gai honetan?

#### 4.- PROPOSAMENAK

1. Programa ezarri aurretik Erakundeen artean hitz egin behar da formula bateratua diseinatu ahal izateko.
2. Orain arteko esperientziaren ebaluazioa aztertu hobekuntzak proposatzeko.
3. Informazio ona, argia eta zabala bidali ikastetxeetara. Familiak informatzeko ereduak ere.
4. Diru kopurua kalkulatzeko metodo errealistagoa erabili beharrak asetzeko.
5. Argitaletxeek eskeiniko duten material tipoa aztertu eta baloratu planak duen filosofiarekin bat egiteko.
6. Administrazioen arteko koordinazioa bermatu kontrako mezuak ez bidaltzeko.
7. Ikasmaterialerako urtero diru kopurua bat finkatu funtzionamendu edo ekipamendurako egiten den bezala.

### 3.- IRAKASLEEN LANSARI DESBERDINTASUNA

Indarrean dagoen lan-hitzarmenean ondoko atala agertzen da:

*VI. TITULUA*

*ORDAINSARIAK*

*b) Pizgarri ekonomiko osagarria ezartzea ondoren aipatzen diren eginkizunetarako eta urtean honako zenbateko hauekin:*

*Tutorea (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntzako araubide orokorreko irakaskuntza) 765,00 euro  
Zikloko koordinatzailea 695,00 euro*

Erabaki hau ikasturte hasieran heldu da ikastetxeetara eta leku askotan pizgarritik kanpo geratu diren irakasleek egiten duten lana gutxietsita ikusi dute, bigarren maileko irakasle bezala tratatuak sentitu dira eta protesta bezala borondatezko ekintza batzuetan parterik ez hartzea erabaki dute.

Eskola gehienetan gaia sortu da eta klaustroaren izenean hainbat idatzi bidali dira Administrazio eta Sindikatuetara, neurria bidegabekeria dela salatzen.

SAREAN Elkartean ikastetxeetatiko arazoan berri izan genuen eta horrek XXIII. Topaketetan gaia aztertzeraz bultzatu gintuen.

Topaketen partaideen ezaugarriak:

Partaideak guztira 39			
Ikastetxeak 37		Beste Erakundeetako partaideak	
Lurraldeak	Partaideak		
Araba	8	-	-
Bizkaia	8	-	-
Gipuzkoa	17	1	1
Daturik gabe	4	-	-

Nabarmendu behar da partaide guztietatik inork ez duela neurri berria egokia ikusten, are gehiago ahobatzez eta gogor kritikatu da Hezkuntza Sailak eta CCOO sindikatuak sinatu duten akordio hau Haur eta Lehen Hezkuntzari dagokienez.

Ikastetxeetan kolektibo baten haserrearekin batera kezka izugarria sortarazi du konprobatzeak Administrazioak ez duela Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua ezagutzen.

Gaiaren sarreran behin eta berriro errepikatu da eskolako antolakuntza talde-lanean oinarrituta dagoela, Haur eta Lehen Hezkuntzan ez dela inolako bereizketarik egiten irakasleen artean lanak eta ardurak banatzeko orduan eta erabaki honek dena pikutara bidaltzeko zorian jarri duela.

Gaiaren eztabaidan, neurriak ondoko ataletan izan ditzakeen ondorioak aztertu ziren:

1. Ikastetxeen antolakuntzan
2. Pedagogiaren ikuspegitik
3. Langile guztien lanaren balorazioaz dagoen pertzepzioa
4. Ikastetxearen lan-giroa

Eta amaieran XXIII. Topaketen proposamenak zerrendatu ziren.

## 1.- IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

### *1.1-Koordinatzaileen aukeraketa*

Neurri honek traba handia suposatu du ikastetxe askoren antolakuntzan koordinatzaileak aukeratzeko zituzten akordioak hautsi direlako egoera ulergaitzak gertarazten, adibidez, eskola batzutan ziklo koordinatzaile guztiak espezifikoak izan dira, tutoreek koordinazio lana egiten badute ez dute horren pizkarria kobratzen...

Puntu honetan egiten den balorazio orokorra negatiboa da irizpide ekonomikoek antolakuntza baldintzatu dutelako.

Ikastetxe askotan Haur Hezkuntza bi ziklotan banatzen da baina aipatutako neurriarekin ezinezkoa bihurtzen da koordinatzaile bakarra onartzen delako.

### *1.2-Tutoretza konpartituak*

Praktika honek emaitza onak eman ditu hainbat ikastetxetan, arreta zehatzago ahalbidetzen duelako baina aurrerantzean ez da posiblea izango gela bakoitzean tutore bakar bat onartzen baita. Ondorioz ikasleei erantzun egokiena emateko eskolak eduki behar duen autonomia murriztuta geratzen da.

### *1.3-Ordezkapenak*

Pizgarri berri horiek jartzeko Hezkuntza Sailaren arduradunek behin eta berriro esaten dute "tutoretza" saritzeko borondatea dela arrazoia. Hala bada, ezin da ulertu zergatik ordezkoek ez dute diru hori kobratu behar. Bidegabekeri hutsa iruditzen zaigu.

### *1.4-Gurasoen bilerak*

Ikasturte hasieran ikastetxeetan egiten diren guraso bilerak garrantzitsuak dira aurrerantzean guraso eta irakasleen arteko harremana bideratzeko, hasieratik elkar ulertzeko eta elkarren arteko konfiantza indartzen dute.

Neurri horrekin espezialistak eta ordezkoak gutxitsita sentitu dira eta kasu askotan ez dira lan orduetatik kanpo egiten diren bileretara joan.

Honek berriro eskolako funtzionamenduari eraso egiten dio. Hezkuntza Sailak kolektibo bat saritu gurean lortu du beste kolektiboa zigortzea.

### *1.5-Zuzendaritza lana*

Zuzendaritza Taldekoen lana, berez, gogorra da eta ez genuen espero Administrazioak berak lan hori zailago bihurtzea baina zori txarrez hori izan da gertatu dena hartu duten erabakiarekin egoera guztiz deserosoei aurre egitea egokitu baitzaie. Irakasle askoren motibazioa pizteko argudio gabe, proiektutaz arduratuko diren pertsonak aurkitzeko zailtasunez, leku askotan sortu den giro txarrari buelta emateko tresnarik gabe... holan gelditzen dira Zuzendaritza Taldeak Administrazioak mota honetako erabakiak hartzen dituenen.

Ikastetxeetan denon lana garrantzitsu eta beharrezkoa da kalitatezko hezkuntzaren bidetik joateko eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan guztiz asumituta daukagun lan sistema apurtzeak soldata desberdinak ezartzean ez dirudi abiapuntu ona denik. Zuzendaritza Taldeak hamaika buruhauste gehiago jasan beharko du horren ondorioz.

### *1.6-Ikastetxeko proiektuak*

Ikastetxeetan gaur egun proiektu desberdin asko garatzen ari dira baina denek behar dute ezaugarri berberarekin kontatzea, irakasleen inplikazioa; hori eduki. ezean alperrik izango dira Administrazioaren ildo nagusiak, gurasoen proposamenak edota Zuzendaritza Taldeak dinamizatzeko egingo duen ahalegina. Ikastetxeetan ederki asko baloratzen dugu proiektu bakoitzaren atzetik dagoen koordinatzailearen lana baina badirudi Administrazioak hori ahaztu egin duela eta ez du beharrezkoa ikusi pizgarririk ezartzea lan hau saritzeko.

Topaketetako lan-taldeetan kritika latzak jaso dituen neurri honi hutsune hau izatea egotzi zaio. Proiektuek ikastetxeen nortasuna markatzen dute eta lan handia eta ilusio puntua eskatzen dute baina holako erabakiek kontrako efektua egiten dute proiektua bera arriskuan jartzen.

## **2.- PEDAGOGIAREN IKUSPEGITIK**

### *2.1- Irakasle guztien tutore-lana*

Irakasle gustillo dagokigu tutore-lana egitea ( tutoretza izan ala ez) eta egunero betetzen dugu zeregin hori gure ikasleekin. Orain tutore/ez tutore bereizketarekin batera soldata desberdina daukagu tutore ez direnek bere lana bigarren mailekoa kontsideratuta ikusi dute.

Eskoletan ondorio larriak izan ditzake neurri honek "tutoretza" filosofia aldatzen baita talde pedagogikoaren garrantzia murriztuz.

### *2.2- Laguntza Zerbitzuak: ALE, PT, Kotsultorea...*

Laguntza Zerbitzuek atal garrantzitsua osatzen dute ikastetxeetan, behar bereziak eta zailtasunak dituzten haurren tutorizazioa egiten dute, curriculum

egokitzapenen pisurik handiena daramate eta talde pedagogikoaren aportazioak koordinatzen dituzte; guzti horrek inplikazio maila altua eskatzen die taldekoei.

Atal honetan ere ikastetxea eta ikasleak kaltetu daitezke hartutako neurriaren ondorioz.

### *2.3- Arloetako espezifikoak eta tutoreak ez diren beste irakasleak: Liburutegikoak, jantokikoak, eskolaz kanpoko ekintzen arduradunak...*

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan lanpostu desberdinak egon arren, argi izan dugu beti elkarlana dela gure lehen lehea eta ez da inoiz soldata bereizketarik egin adskripzioaren arabera.

Denok dakigu espezifikoaren zeregina ez dela erosoena eskoletan: talde askotatik pasa behar, ikasleen portaera berezia tutore ez denarekin etab. hala ere beti sentitu dira talde baten atala beste irakasleen eskubide eta betebeharrak berberekin. Ikasturte honetan indarrean jarri den akordioaren ondorioz, bigarren mailako irakasle bezala tratatuak sentitu dira eta egiten duten lana gutxietsita. Arrazoi Horregatik eskola askotan lehen borondatez egiten zituzten lan batzuk ez egitea erabaki dute.

Topaketetako partaideen artean kasu desberdinak aztertu dira eta oraingo egoera konpondu ezean, etorkizunerako inplikazioan galera handia aurriztatu da.

### *2.4- Irteera pedagogikoak*

Irteera pedagogikoetan kalte handia somatzen da, irakasleen parte hartzea borondatezkoa delako eta pizgarri hauek sortu duten bereizketaren ondorioz urteetan ikastetxeetan egindako lana eta lortutako inplikazio maila zartako batez pikutara joateko zorian dago.

Irteerak egiteko ezinbestekoa da ikastetxeko irakasle guztiarekin kontaktzea, egonaldiak direla, ratioak direla (20/1) etab. Hitzarmenean sinatutakoak atzerapausu bat suposa dezake espezialista askok uko egingo baitiote irteeretara joateari.

### *2.5- Gelako bilerak*

Gela baten ikasleekin harremanak duten irakasle guztiak osatzen duten taldea garrantzitsua da bilere horiek antolatze eta egiteko.

Hemen aztertzen ari garen neurriak erantzukizun guztia tutorearen gainean uztera bultzatzen gaitu.

Hau ez da nahi dugun eskola mota eta antzina abiatu ginen bakarkako lanetik talde lanera; hainbat urtetan lan egin eta gero hobekuntza konprobatu dugunean Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek eskatu ez dugun pizgarri baten ezarpenak lan guztia hondatuko duela ikusten dugu.

### 3.-LANGILE GUZTIEN LANAREN BALORAZIOA

Haur eta Lehen Hezkuntzan denon lana berdintsua da eta guztien inplikazioa behar da proiektuak aurrera eraman ahal izateko. Tutoretza eta denoi dagokigun "tutore -lana" beriztu eta baloratu behar dira.

Erabaki honekin lehen eta bigarren mailako irakasleak sortarazi dituzte eskolen kalterako.

Lana eta inplikazioa baloratu behar dira kasu guztietan baina orain kolektibo bakar baten egin den bereizketak ondorio kaltegarriak ekarriko dituela uste dugu.

Beste hainbeste arloetan bezala, Eskola Txikiak eta beren beharrak ez dira kontuan hartu.

### 4.-LAN GIROA

Ikasturte honen hasieran jarra da martxan pixgarri berrien hitzarmena. Ikastetxeetan lehen egunetan prestakuntza egiten da eta aurten arazo batzuk planteatu badira ere, lanak leku gehienetan banatu dira beti bezala.

Lehen hiruhilebetean eskoletara informazioa heldu da eta protestak ugaritu dira. Klaustro askoren izenean idatziak bidali dira bai Administrazioari baita sindikatuei ere, sinatu den hitzarmenarekin irakasleen desadostasuna jakinarazten eta barneko giroa ez da aldatu.

Baina hainbat ikastetxeetako lan giroa garrastu da, sekulan entzundakoak orain entzun dira eta egoera bidegabe honi irteera egokia ematen ez badiote txarrerara egiteko arriskua ate joka daukagu.

### 5.-PROPOSAMENAK

1. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen artean bereizketarik ez egitea.
2. Pizgarri berria irakasle guztiei zabaldu.
3. Diruz lan bereziak eta inplikazioa saritzea.
4. Beste ardurak orduekin konpentsatzea.
5. Diru poltsa hori oinarritzko soldata igutzeko erabili.

XXIII. Topaketetan Lansari desberdintasunari buruz ikastetxeetan daukagun iritzia argi geratu da. Hau ez da Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen eskaera, bai aldiz, askotan salatu dugun Bigarren Hezkuntzakoekin ekiparazioa. Ez dugu ulertzen Administrazioa eta Sindikatuen jarrera eskatu ez duguna emateko eta nahi duguna saihesteko.

Harriduraz konprobatu dugu Administrazioak gure funtzionameduaz duen ezagutza eza, guk talde-lana baloratzen dugu eta neurri honek bete-betean horren kontra jotzen du.

Azkenez azpimarratu behar dugu ikastetxeetako elkarbizitzarako oso garrantzitsua dela langile guztien artean dagoen giroa eta horretarako sentsibilitateak zaindu behar dira. Erabaki honek kolektiboan bi mailako irakasleek

daudela argi utzi du ezpaita ahaztu behar Administrazioak aipatzen duen "errekonozimendua" adierazteko duen tresna soldata dela.

#### 4. - Proposamen orokorrak

XXIII. Topaketetako gaiak aztertzean argi geratu da hainbat urtetako lanaren ondoren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan lortutako lan sistema oso ondo baloratua dagoela, hau da, talde-lana eskolaren funtzionamendurako motorra dela gaur egun. Orain gure eskakizuna izan ez den arrazoiarengatik arrisku bizian jarri dira antolakuntza eta giroa.

Gai bakoitzaren azterketarekin batera proposamen zehatzak egin badira hemen iradokizun orokorrak planteatzen dira. Ez da lehen aldia SAREAN Elkartearen aldetik proposamen guzti hauek Hezkuntza Sailaren ordezkariari jakinarazten zaizkiena, eta arlo batzuetan hobekuntzak igarri badira ere gure ustez, kalitatearen ildoei edo Europari begira jartzen gaituzten une honetan, oinarritzko zutabeak direla Eskola Publikoari emango zaion bultzada hitz hutsetan geratuko ez bada.

Beraz, ondoko proposamen orokorrak egiten ditugu:

1. Eskolak benetan ezagutzea, dituzten ezaugarri eta beharrak kontuan hartzea, funtzionamendua errespetatzea eta hobetzeko proposamenak egitea, eta ez hartu barruko giroa eta antolakuntza oztopatuko duen erabakirik.
2. Informazioa argi eta denboraz bidaltzea. Eskola komunitate osoa informatu kolektibo bakoitzaren zeregina ondo zehaztuz. Gurasoei gai orokorreari buruzko informazioa eman behar zainean ikastetxeetara inprimaki eredu bidali.
3. Proiektuen esperientzia pilotuen ebaluaketa serioa ezagutarazi.
4. Kolektibo interesatu guztien iradokizunak jaso.
5. Aurrekontu nahikoa prebistatuta eduki, zabaltzen diren espektatibak eta errealitatea ahalik eta gertuen egoteko.

## 5.- Labur bilduz

SAREAN Elkartearen XXIII. Topaketa hauetan ikastetxeetan pil-pilean dauden bi gai aztertu dira. Biak garrantzitsuak dira baina guztiz desberdinak, alde batetik testuliburuen proiektuaren antolakuntza eta bestetik pizgarri ekonomiko baten ondorioak. Baina bada hari komun bat zeinek biak lotzen dituen, hau da, kexua azalarazteko arrazoia, eta gezurra badirudi ere, ez da inondik inora ez lana ezta diru soila izan baizik eta zelan bizi izan ditugun Administrazioak hartutako erabakiak. Egia da Administrazioak bakarrik ez dituela erabakiak hartu, Gurasoak edo Sindikatuak izan ditu bidelagun zeregin horretan baina suposatzen da ikastetxeen ezagupena eta beharrak ezagunak dituela eta erabakien erantzukizun nagusia ere Administrazioarena dela.

Testuliburuen erabilpenerako Programan lan izugarria ajusten da ikastetxeen gainean, batez ere Zuzendaritza Taldekoen gainean baina hala ere hori ez da izan kexurik handiena, baizik trataera, *"momenturik txarrean eta informazio gutxi eta txarrarekin"*. Hau izan da gehien errepikatu den esaldia.

Pizgarriaren gaira bagatoz, berriro agertzen da irakasle multzo bati emandako tratu txarra, *"gutxietsita ikusi dute bere lana hainbat irakasleek"* errepikatu da behin eta berriro.

Curriculum berrian leku berezia hartzen du emozioen kudeaketa zuzena egiteko konpetentzia eta uste dugu ikuspuntu aurrerakoa dela sinisten baitugu antzinatek izkutuan gorde den aspektuaren garapena ezinbestekoa dugula etorkizunari lasai begiratzeko. Baina hau katea da, ez da eskolan bakarrik landu behar den arloa baizik eta eguneroko zereginetan praktikan jarri beharrekoa, eta noski, Administrazioak ere bai.

Espero dugu txosten honetan biltzen diren iradokizunak baliogarriak izatea aztertu diren ekimenak hobetzeko edota etorkizunean sor daitezkeen beste batzuen antolakuntza errezteko. Lan horretan SAREAN Elkartearen lankidetzaz ziurtatzen dugu.

## 6.- ERANSKINAK

Atal honetan ondoko dokumentuak aurki daitezke:

1. Gaien eztabaida gidatzeko eta ondorioak jasotzeko erabilitako fitxak
2. XXIII. Topaketen ebaluaketa
3. Komunikabedeei bidalitako prentsa oharra







# SAREAN - XXIII. TOPAKETAK - Europa Jauregia, Gasteiz

**Gaia: Testuliburuak eta ikasmaterial didaktikoaren kudeaketa solidarioa eta zuzena egiteko programa**

Lurraldea  Ikastetxea  Laguntza Zerbitzua  Sindikatua  Gurasoa  Beste Erakundea

A  B  G

Zure ikastetxean testuliburuak erabiltzen dira ?  BAI   EZ

Zure ikastetxeak parte hartu du esperientzia pilotuan?  BAI   EZ

## PROGRAMAREN FILOSOFIA ETA ESKOLAREN AHALMENA

- Programa honek aldarrikatzen duena "ekitatea" al da?
- Eskolari egozten zaion zama berri honi erantzuteko gai izango al da?
- Gizarteko beste esparruetan zer baloratzen da?

**HAUSNARKETA ETA PROPOSAMENAK:**

**Programan ikusten diren alde positiboak eta arazoak sailkatu**

## PROGRAMAREN EZARPENA

Alde positiboak	Programaren atala	Arazoak
	Egindako esperientzia pilotua	
	Ikastetxeetara bidali den informazioa	
	Epeak	
	Diru kopurua 103 € 25€+78€	
	.....	

**ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA ARLOA**

<b>Alde positiboak</b>	<b>Programaren atala</b>	<b>Arazoak</b>
	Zuzendaritzaren papera	
	Gestio programa	
	Guraso edo arduradunen papera	
	Ikastetxe batzordearen osaketa eta bere funtzioak	
	Liburuaren mantenimendua.	
	Liburuak ikastetxean gorde beharra.	
	.....	

**ARLO PEDAGOGIKOA**

<b>Alde positiboak</b>	<b>Programaren atala</b>	<b>Arazoak</b>
	Liburuak erabiltzeko arauak	
	Testuliburuak aukeratzeko baldintzak	
	.....	

**PROPOSAMENAK:**



SAREAN - XXIII. TOPAKETAK - Europa Jauregia, Gasteiz  
**Gaia: Irakasleen lansari desberdintasuna**

Lurraldea  Ikastetxea  Laguntza  Zerbitzua  Sindikatua  Gurasoa  Beste Erakundea

A  B  G

Egokia iruditzen zaizu hartutako erabakia? **BAI**  **EZ**

*Neurri horrek ikastetxeetan izan ditzakeen ondorioak baloratu*

**IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZAN**

Arloak	Kalte handia	Kalte gutxi	Ondorio gabe	Ondorio positibo	Arazoak edo abantailak
• Koordinatzaileen aukeraketa					
• Tutoretza konpartituak					
• Gurasoen bilerak					
• Zuzendaritzaren lana					
• Ikastetxeko proiektuak					
• ....					

**PROPOSAMENAK:**

### PEDAGOGIAREN IKUSPEGITIK

Arloak	Kalte handia	Kalte gutxi	Ondorio gabe	Ondorio positibo	Arazoak edo abantailak
• Irakasle guztiaren tutore-lana					
• Kontsultorea PT-ALE...					
• Arloetako espezifikoak					
• Irteera pedagogikoak					
• Gelako bilerak					
• ...					

### LANGILE GUZTIEN LANAREN BALORAZIOA

Arazo edo abantailak	Proposamenak

### IKASTETXEAREN LAN-GIROA

--



## XXIII. TOPAKETEN EBALUAZIO AKTA

**EGUNA:** 2007-11-17

**LEKUA:** Gasteizko Europa Jauregia

**ORDUA:** 11: 00tan

### GAI-ZERREDA

1. XXIII. Topaketen ebaluazioa
2. Komunikabideei bidaliko den prentsa oharra
3. Norberak lekarkeena

### 1. - XXIII. Topaketen ebaluazioa

Partaideen datuak:

Matrikulatuak	Parte hartu dutenak			Ikastetxeak			Beste Erakundeak
70	<b>73</b>			<b>48</b>			<b>5</b>
	Osteg.	Ostir.goiz	Ostir.arr.	A	B	G	
	45	62	54	14	13	21	

Ebaluaketa orrien araberako datuak:

Jasotako ebaluazio orriak <b>27</b>								
Araba	Bizkaia	Guipuzkoa	Kide bai	Kide ez	?	Bestetan bai	Bestetan ez	?
6	10	11	19	8	0	19	5	3

<i>Ebaluazio atalak</i>	<i>XVI. Top Donostia</i>	<i>XVII. Top Bilbo</i>	<i>XVIII. Top Donostia</i>	<i>XIX. Top Eibar</i>	<i>XX. Top Donostia</i>	<i>XXI. Top Bilbo</i>	<i>XXII. Top Donostia</i>	<i>XXIII. Top Gasteiz</i>
<b>1. Diseinua</b>	<b>4,5</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>4'4</b>	<b>4,4</b>	<b>4,6</b>
• Gaien aukeraketa	4,7	4,2	4,4	4,3	4	4'3	4,4	4,5
• Denboraren antolaketa	4,5	4	4,2	4,2	4,3	4'4	4,4	4,6
• Talde txikien lan-antolaketa	4,3	4,5	4,2	4,2	4,3	4'5	4,4	4,6
<b>2. Azpiegitura</b>	<b>4,5</b>	<b>4,6</b>	<b>4,2</b>	<b>4,1</b>	<b>4,2</b>	<b>4'6</b>	<b>4,4</b>	<b>3'9</b>
• Gelen funtzionalitatea eta tresneria	4,6	4,5	4,1	4	4,4	4'5	4,4	3,7
• Bazkaria eta hamaiketakoa	4,4	4,7	4	4,2	4	4'7	4,3	4,1
<b>3. Antolakuntza</b>	<b>4,5</b>	<b>4,3</b>	<b>4,2</b>	<b>4,1</b>	<b>4,3</b>	<b>4'5</b>	<b>4,5</b>	<b>4,3</b>
• Aurreko komunikazioa	4,6	4	4,2	4,3	4,3	4'5	4,6	4,2
• Oinarrizko dokumentazioa	4,5	4,6	4,2	3,8	4,3	4'4	4,3	4,1
• Moderatzaileen lana talde handian eta txikian	4,4	4,4	4,2	4	4,4	4'7	4,3	4,5
• Topaketaren egiturak eskaini duen partehartzeko aukera	4,4	4,3	4,4	4,2	4,4	4'6	4,8	4,6
<b>4. Partaidetza</b>	<b>4,1</b>	<b>4</b>	<b>3,7</b>	<b>4</b>	<b>3,6</b>	<b>3'7</b>	<b>4,1</b>	<b>4</b>
• Partaideen kopurua	3,9	3,3	3,8	3,7	3,2	3'0	3,5	3'4
• Talde txiki eta handiko partehartze-ugaritasuna	3,9	4,1	3,7	4	3,4	3'8	3,1	4'2
• Langirotik aparteko harremanak	4,4	4,5	3,8	4,2	4,2	4'4	4,7	4,6
<b>5. Emaitzak</b>	<b>4</b>	<b>3,8</b>	<b>3,9</b>	<b>3,7</b>	<b>3,9</b>	<b>3'9</b>	<b>4,0</b>	<b>4</b>
• Informazio maila	4,2	4,2	4,2	3,9	4,3	4'4	4,3	4,4
• Eztabaida, hausnarketa	4,1	4,2	3,9	3,9	4	4'0	4,1	4'2
• Lortutako ondorioen argitasuna	3,9	4	4	3,7	3,8	4	3,9	4
• Landutako gaiaren helburuak lortzeko espektatiba	3,6	3	3,6	3,4	3,5	3'3	3,5	3'5
<b>PUNTUAZIO OROKORRA</b>	<b>4,3</b>	<b>4,2</b>	<b>4,1</b>	<b>3,9</b>	<b>4,1</b>	<b>4'1</b>	<b>4,1</b>	<b>4,2</b>

Ebaluazio orokorra ona iruditzen zaigu, azken bost Topaketetakoa baino pixka bat altuagoa (1etik 5era doan eskalan 4,2). Atalez-atal aztertuz gero, aspektu azpimarragarriak agertzen dira adibidez, diseinuari emandako balorazioak (4,6) adierazten digu asko baloratzen dela Topaketek eskaintzen duten aukera ikastetxeetan dugun errealitatea kanporatzeko.

Antolakuntzako taldeak garrantzi handia eman dio parte hartu duten ikastetxe kopuruari (47) SAREANen iritziak Topaketen lanaren ondorioak dira batez ere eta oso ondo baloratu da hainbeste ikastetxen aportazioak jasotzeko izan dugun aukera.

Bestalde, Topaketen berri irakasleen artean zabaltzeko azken alditan "irakasle.net" erabili dugu baina bidalketa honek eskatzen dituen epeak kontuan hartu behar ditugu informazioa sasoiz heltzeko.

### **Mahaingurua**

Ostegunean, "irakasleen lansariak, oraina eta etorkizuna" izenburupean sektoreko sindikatuen arteko mahaingurua egin zen. SAREAN Elkartearentzat lorpen handia izan da; aspaldiko partez ez ditugu sindikatu guztiak elkarrekin ikusi eta han denak bildu ziren (CCOO, ELA, FETE-UGT, LAB, STEE-EILAS). Jardunaren ondoren ondoriozta daitekeen adostasuna

honakoa da: une honetan sindikatu guztiok ados daude *diru-pizgarri hauek irakasle guztiengana zabaldu behar direla*.

Mahainguruak eduki zuen alde negatiboa CCOOek ekitaldiari buruz egin zuen balorazio txarra izan zen. Gure aldetik geneukan asmoa argitzea komenigarria dela iruditzen zaigu eta horretarako bilera bat eskatuko diegu.

Hezkuntza Sailaren konpromisoa arazoari irtenbide bat bilatzeko

Jardunaldien itxiera saioan Hezkuntza Sailaren ordezkariak gurekin izan genituen, *Itziar Garaizar anderea*, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaria, *Jorge Navas jauna* Hezkuntza Saileko Langileriaren Arduraduna eta *Juanjo Agirrezabala jauna*, Hezkuntza Saileko Berriztatze Zuzendaria bertan izan ziren. Hauek ikastetxeetan ari direnen ikuspegia jaso zuten eta arazoari irtenbide bila gaiaz hitz egiteko konpromezua hartu zuten.

## **2. - Komunikabideei bidaliko den prentsa oharra**

XXIII. Topaketetako ondoriorik nagusienak prentsara bidaliko den oharrean azalduko ditugu.

Garatuko diren ideia nagusiak hauexek izango dira:

- Sindikatuen mahainguruan jasotako iritzi bateratua.
- Ikastetxeetatik heldu den informazioa neurriaren ondorioz gertatzen ari diren arazoekin.
- Hezkuntza Sailaren ordezkarien konpromisoa.
- Testu liburu eta materialen programak behar bezala egoteko falta duena.
- Gure prestutasuna Eskola Publikoaren aldeko lanetan.

Beste barik bilera amaitu da.

## PRENTSA OHARRA

*SAREAN Elkarteak azaroaren 15 eta 16an Gasteizko Europa Jauregian XXIII. TOPAKETAK burutu ditu. SAREANek EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 168 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere, harremanak eta elkarlana bultzatzea dira, nagusiki ikastetxeen eta sistemaren antolakuntza arloari dagokionean.*

*Jardunaldi hauetan nagusiki zuzendaritza esparruan dabilen kideek hartu dute parte, baina beste Topaketetan bezala, guraso, sindikatu eta Hezkuntza Administrazioaren kideen ekarpenak ere jaso ahal izan ditugu.*

Jardunaldietako aztergai nagusia irakasle mailan ezarri diren *ordain-sari berrien eragina* izan da. Azken lan-hitzarmenean jasota geratu den bezala, eginkizun jakin batzuetarako, tutore eta ziklo-koordinatzaileentzat hain zuzen, pizgarri ekonomiko berriak sortu dira.

Lehen ekitaldia sektoreko sindikatu guztiek, hots, CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT-ek, osatutako mahaingurua izan zen. Bertan, gehien bat Haur eta Lehen Hezkuntzan zentratuta eta, indarrean dagoen lan-hitzarmena oinarritzat hartuz, ordainsarien atala aztertu eta etorkizunari begira kokatzeko eskatu zitzaizen.

Horrela bada, ondoriozta daitekeen adostasuna honakoa da: une honetan sindikatu guztiok ados daude *diru-pizgarri hauek irakasle guztiengana zabaldu behar direla*.

Ordain-sari berriak irakasle guztien artean banatu

Jardunaldietan bildutako enpresaren ondorio nagusia ere sindikatuaren ordezkariak ikusitakoaren ildo beretik joan zen. Izan ere, irakasleen inplikazioa saritu eta hezkuntza kalitatea bultzatu nahi izan duen neurri honek ekarri ditu eragin kaltegarri batzuk:

- *Ikastetxeen autonomia kaltetu du, izan ere baldintza ekonomiko honek zikloak antolatu eta haien koordinatzaileak aukeratzeko eragin eragina izan du, kasu batzuetan arazo pedagogiko edo didaktikoak hobetsi beharrean. Era berean, ikastetxeko beste ardurak banatzeko edo beste ekintzak antolatzeko zailtasunak azaldu dira.*
- *Praktika pedagogiko onetan atzera pausoa somatu da. Adibidez, ikasle talde baten tutoretza bi irakasleren artean partekatzea eragotzi du pizgarrien sistema honek, taldeko tutore bakarra onartzen baitu.*
- *Irakasle asko diskriminatuak sentitu dira, beren lana gutxietsia ikusi baitute eta, besteak beste, irakasleen arteko konparazioak sortu dira. Honek guztiak, oro har, klustroaren arteko elkarbizitzan eta eskola-giroan kalte eragin du.*
- *Horrela, ikasturte batetik bestera, zuzendaritza-lana betetzeko zailtasunak areagotu egin dira. Beste era batera esanda, arazorik ez zegoen lekuan arazoa sortu da.*

Hau guztia gutxi ez eta honako arrisku hauek ere agerian geratu dira partehartzaileen iritziz:

- **Tutore ez diren irakasleen inplikazio maila jaits daiteke, adibidez, derrigortuta ez egonik, orain artean borondatez egin izan diren hainbat ekintzetan, eta horrek gerora eragina irakasle guztiengan izango luke.**
- **Neurria indarrean sartu berria da eta ondoezaren adierazpenak hastapenetan daudela antzematen da. Horregatik, garrantzitsua da arazoari ahalik eta azkarren irtenbide egokia ematea**

Hezkuntza Sailaren konpromisoa arazoari irtenbide bat bilatzeko

**Gai honi buruzko azken saioa Topaketen itxiera ekitaldian egin zen Hezkuntza Saileko ordezkari baten parte hartzearekin. Bertan, Itziar Garaizar anderea, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaria, Jorge Navas jauna Hezkuntza Saileko Langileriaren Arduraduna eta Juanjo Agirrezabala jauna, Hezkuntza Saileko Berriztatze Zuzendaria izan ziren. Hauek ikastetxeetan ari direnen ikuspegia jaso zuten eta arazoari irtenbide bila gaiaz hitz egiteko konpromezua hartu zuten.**

Testu liburu eta ikasmaterialen programa behar bezala zehaztu gabe dago

**Topaketetako lantaldeetan aztertu zen beste gaia “Testu liburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko Programa” izan zen. Egitasmo honek ikasturte honetarako izan duen ofiziozko ezarpenak arazo asko sortu ditu ikastetxeetan. Eragozpen horien oinarrian bi arrazoi nagusi antzematen dira:**

- **Aurreko ikasturtean egin ziren esperientzia pilotuen ebaluaketarik ez da egin, eta eskarmentu horretatik behar diren ikaspen eta argitasunak ondorioztatu gabe zabaldu da egitasmoa ikastetxe guztietara.**
- **Kudeaketa aldetik oso gaizki bideratua izan da, izan ere, agindua ikasturtea amaitzear zegoela iritsi zen ikastetxeetara eta oso epe motzetan gaia aztertu, familiak informatu, azpiegiturak prestatu, erabakiak hartu eta abar egin behar izan ziren. Gainera horretarako Hezkuntzatik luzatu zen informazioa ulergaitza izan zen. Oraindik ere zalantza ugari antzematen dira hala ikastetxeetan nola Administrazioan bertan ere.**

**Beraz, ondorioztatzen dena zera da: Programa honetan izandako aurreko esperientzia ondo ebaluatu behar dela eta ikasturte honetan bere aplikazioak izan duen eragina ere ondo aztertu arazo horiek ahalik eta azkarren bideratzeko.**

**Gai batean nahiz bestean agerian geratu da zein garrantzitsua den Hezkuntza Administrazioa eta ikastetxeen kudeaketan ari garenon arteko komunikazioa, adostasuna eta elkarlana helburu onetatik eragin onuragarriak lortzeko. Guri dagokigunez, etengabeko ahalegin horretan jarraituko dugu eta gure prestasuna berresten dugu Euskal Eskola Publikoa egunez egun sendotzen jarrai dezagun.**

**SAREAN Elkarte  
2007ko azaroa.**

## COMUNICADO DE PRENSA

*La asociación SAREAN ha celebrado sus XXIII Topaketak o encuentros semestrales en el Palacio Europa de Vitoria-Gasteiz el 15 y 16 de noviembre. SAREAN reúne 168 centros públicos de Educación Infantil y Primaria de la CAV, y sus objetivos principales son fomentar y desarrollar las relaciones y el trabajo colaborativo entre los centros y de éstos con la Administración educativa, principalmente en la dimensión organizativa de los centros y del sistema.*

*La mayoría de los participantes de las jornadas pertenecen al campo de la dirección de estos centros y también, al igual que en ocasiones anteriores, se han podido recoger las aportaciones de otros colectivos: padres y madres, sindicatos y miembros de la Administración.*

**El tema principal de las jornadas ha sido el análisis de la repercusión que ha tenido entre el profesorado la aplicación de los nuevos incentivos económicos. Tal y como ha quedado reflejado en el último acuerdo laboral, a ciertas funciones, concretamente la de tutor y coordinador de ciclo, se les han adjudicado un nuevo plus económico.**

**El primer acto de las Topaketak consistió en una mesa redonda donde participaron representantes de todos los sindicatos, es decir, CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS y UGT. A todos ellos se les pidió que teniendo como contexto la Educación Infantil y Primaria, y tomando como base el acuerdo laboral vigente analizaran el apartado de los incentivos, solicitándoles además la posición de sus respectivas organizaciones cara al futuro en lo que a este tema se refiere. A través de las intervenciones de los diferentes representantes de los sindicatos llegamos a la conclusión de que todos están de acuerdo en el siguiente punto: *estos incentivos deben extenderse a todo el profesorado.***

Los nuevos incentivos deben extenderse a todo el profesorado

**La conclusión principal a la que llegaron los participantes de las jornadas tras la reflexión realizada en los grupos de trabajo, coincidió con la de los representantes de los sindicatos. La nueva medida tomada que pretendía premiar la implicación del profesorado e impulsar la calidad en la educación, ha tenido repercusiones negativas:**

- *Ha perjudicado la autonomía de los centros, de hecho, la existencia de estos incentivos económicos ha tenido influencia en la forma de organizar los ciclos y de nombrar coordinadores/as, obviando las razones pedagógicas o didácticas.*
- *En algunas buenas prácticas pedagógicas se ha observado un retroceso. Por ejemplo, este nuevo sistema impide la tutoría compartida, puesto que sólo permite un tutor/a por grupo.*
- **Muchos profesores/as se han sentido discriminados/as dado que han visto su trabajo minusvalorado y han surgido comparaciones entre ellos. Todo esto ha traído como consecuencia que la convivencia entre los miembros del claustro y el ambiente escolar se haya enrarecido.**
- **Así mismo, han aumentado las dificultades que había para desarrollar la función directiva de los centros. Dicho de otro modo, se ha creado un problema allí donde no existía.**

**Por si esto fuera poco, en opinión de los participantes de las Topaketak hay otros riesgos que se perfilan:**

- *El nivel de implicación de los profesores/as que no son tutores/as puede descender, por ejemplo, en aquellas actividades que no siendo obligatorias se han ido desarrollando con una gran dosis de voluntad; esto a posteriori repercutiría a todo el profesorado.*
- *Esta medida es nueva y se percibe que los signos de malestar están iniciándose por lo que es muy importante encontrar una solución satisfactoria a este problema lo antes posible.*

Compromiso del Departamento de Educación para buscar solución al problema

**El acto de cierre de las Topaketak se desarrolló ante una representación del Departamento de Educación. Así, la Sra. Itziar Garaizar, Directora de Personal, el Sr. Jorge Navas, Responsable de Personal y el Sr. Juanjo Agirrezabala, Director de Innovación, pudieron recoger los puntos de vista de las personas que a diario viven la vida de los centros escolares y ante ellas adoptaron el compromiso de hablar acerca del problema planteado, para darle una solución.**

El programa de libros y material escolar no está debidamente concretado

**El otro tema que fue objeto de análisis en los grupos de las Topaketak fue el “Programa de uso solidario y equitativo de los libros de texto y material escolar”. La aplicación de oficio de este proyecto en el presente curso ha traído a los centros escolares muchos problemas causados fundamentalmente por dos razones principales:**

- *No se ha hecho la evaluación de las pruebas piloto realizadas el curso anterior y se ha generalizado a todos los centros sin tener en cuenta estas experiencias.*
- *La gestión se ha diseñado muy mal, de hecho, la resolución llegó a los centros a punto de finalizar el curso y con un plazo muy escaso hubo que analizar el tema, informar a las familias, preparar infraestructuras, tomar decisiones etc. Además la información que envió el Departamento era de tal difícil comprensión que todavía hay muchas dudas sin resolver tanto en los centros como en la Administración.*

**La consecuencia que se extrae de todo ello es la siguiente: Se debe evaluar la experiencia de pilotaje y analizar los problemas que ha traído este año la aplicación generalizada del programa para darles solución en el tiempo más corto posible.**

**Tanto en un tema como en el otro se pone en evidencia la importancia de la comunicación entre el Departamento y los responsables de la gestión de los centros con el objetivo de desarrollar un trabajo en común que conduzca a acuerdos y mejoras. En lo que corresponde a SAREAN seguiremos trabajando en esta línea y una vez más nos afirmamos en nuestro compromiso para que la Escuela Pública Vasca siga fortaleciéndose día a día.**

**Asociación SAREAN  
Noviembre de 2007**